

1. GURE ENPRESA

NOR GARA?

Gure Emergicasc enpresa, **kontsumitzaileen segurtasuna** bilatzen duten gazte batzuk diseinatu dute, ingurumen-arazoetan bere produktuarekin laguntzeaz gain, **berrerabilitako produktuak** erabiliz. Produktua gu geuk ekoizten dugunez, produktu bakarra eta pertsonalizatua da, beraz gure bezeroekin harreman estua daukagu. **Fabrika Hernanin** kokatuta dago.

ZER ESKAINTZEN DUGU?

Gure **produktu lehena** gure **sentsorea** da, honek, erabiltzailearen kontaktuei eta larrialdi zerbitzuei istripu baten berri ematea du helburu. Istripuren bat nabaritzen badu, sentsoreak 30 segunduko tarte ematen digu alarma aplikaziotik desaktibatzeke. Tarte honetan alarma ezeztatzen ez bada, segurtasun protokoloa hasiko da. Hemen, aldezturik zehaztutako mezu bat eta GPS kokapena bidaliko die Emergicasc-ak zure kontaktuei, eta gainera larrialdiei ere bidaliko die zure kokapena denbora errealean.

Hau ez da eskaintzen dugun produktu bakarra. Produktu hau kasko guztietan erabil dezakegunez, oso produktu moldakorra da, baina kasu batzuetan agerian gera daitekeenez, erraz hondatu daiteke. Hori dela eta, **EmergiCasc-eko sentsorea txertatzeko zulo berezi bat duten kasko batzuk eskaintzen ditugu**, material birziklatu baina iraunkorrekin sortuak. Hala ere, kasko horiek oso seguruak dira eta **homologatuta daude**. Homologatzeko hainbat fase pasa behar izan dituzte kaskoek; Diseinuak ECE 22.05 edo DOT bezalako arauak bete ditu. Segurtasun-probak egin zaizkie kaskoei (kolpeak, kolpeen xurgapena eta abar). Ziurtagiri-agentzia batek egiaztatu eta onartu ditu, eta azkenik homologazioaren etiketa dute. **4 Urteko balio-bizitza** dute, hau da, erabiltzen jarrai daitezke, baina bezeroaren ardurapean. **Denbora hori igarota, enpresak ez ditu bere gain hartzen egon daitezkeen kalteen erantzukizunik**. Hainbat kasko desberdin diseinatu ditugu. Hala nola errepideetan ibiltzeko motoentzat, motokrosserako, zaldirako edota bizikleta eta patineteentzako.

Bestalde, **aplikazio bat** dugu. Printzipioz debalde da baina hilabeteetan behin kuota bat ordaindu ezker, zerbitzu gehiago eskeini ditzake. Doako bertsioak funtzio arruntak eskeintzen ditu, adibidez, istripuren bat izanezgero zein mezu eta nori bidaltzea nahi duzun aukeratu ahalko duzu. Kuota ordaintzeak, aplikazioaren funtzio guztiak erabiltzeko eskubidea emango dizu. Doako bertsioak eskaintzen dituen zerbitzuez aparte, egiten dituzun ibilbideak erakutsiko dizkizu. Gps bitartez hartutako abiadura maximoa esango dizu, batzuetan besteko abiadura eta hainbat funtzio gehiago.

Bukatzeko, **hitzaldiak** emango ditugu eskola eta antzokietan errepidean izan behar diren ardurez eta drogek edota alkoholak dituzten arriskutaz hitz egingo dugu. Honen ordainetan gobernuak subentzio edo diru-laguntza batzuk emango dizkigu enpresa irekitzen laguntzeko.

GURE LEHIAKIDEAK:

TOCSEN eta ANGI CRASH SENSOR enpresek, gure sentsoreen antzeko sentsoareak ekoizten dituzte. Hauek ordea, ez dituzte beraien produktura moldatzen diren kasko bereziak egiten. Hori da beste empresetatik bereizten gaituena.

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK:

Azkenik, gure enpresak garapen iraunkorreko hainbat helburu betetzen ditu, "Mundu jasangarri bat lortzeko eta mundu osoan eragina duten ingurumen, gizarte eta ekonomia arazo larriei aurre egiteko." Helburu hauek beharrezkoak dira gure planeta zaintzeko.



3: Gure enpresak helburu hau betetzen du alde batetik, gure bezeroak kirola egitera bultzatzen ditugulako eta honekin batera haien segurtasuna bilatzen dugulako.



13: Gure enpresak 13 helburuarekin harremana du. Izan ere, gure kaskoak egiteko birziklatutako materialak erabiltzen ditugu, eta honi esker ez dugu mundua kutsatzen. (FILAMENTUA, NOLA...)



9: Helburu honekin diru-laguntzak lortzen ditugu gure kaskoa egiteko makina berriak erabiltzen ditugulako.